



ZINEUSKADI 2020

ZINEUSKADI

ZE: 03-20

"ITXITIK" Euskal Autonomia Erkidegoko berrogeialdiaren inguruko film laburren ekoizpenari zuzendutako diru-laguntza deialdia.

7 begirada, 7 erretratu, konfinamendu bakarra.



03/2020 DEIALDIA, COVID-19aren testuinguruan film laburrak eta ondorengo film luze kolektiboa ekoizteko diru-laguntzei buruzkoa.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikaren Sailak eta Zineuskadi elkarteak ezohiko diru-laguntzen deialdi bat jarri dute martxan COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz etorri den konfinamenduaren inguruko ikus-entzunezkoak ekoizteko, Euskadiko ikus-entzunezko jarduera profesionala sustatzeko xedez.

Ekimen honek sektoreko berraktibazio profesionalaren pizgarri izatea du helburu, COVID-19 pandemiak behartutako etenaldiaren ondorioz egoera latza bizi duen sektorea den aldetik.

Horretarako, Zineuskadik kudeatutako deialdiaren bidez COVID-19aren konfinamenduari buruzko 7 film labur ekoiztea da asmoa, eta jarraian film luze bat egitea film labur horiek elkartuta. EitBk hautatutako filmen komunikazio publikoaren eskubideak erosteko konpromisoa hartu du, eta horretarako 12.500 € emango dizkio proiektu bakoitzari eta 3.000 € film laburrekin osatutako azken lanari, filmok telebistan eman daitezzen lagapen-kontratu bakoitzean ezartzen diren baldintzak betez.

Euskadiko A kategoriako zinemaldiak, hala nola Donostia Zinemaldiak eta ZineBik, deialdi honen bidez eskuratutako film laburrak eta azken film luzea programazioan sartzeko konpromisoa hartu dute. Horrela, Euskadiko gizarteak eskuragarri izango ditu deialdi honek ematen dituen filmak.

Krisialdiak kulturaren eta zinemaren sektorearen jarduna eten duen eta haien ekonomikoki mehatxupean jarri dituen testuinguru honetan, ezinbestekoa da horien jarduera dinamizatuko duten proiektuak sustatzea elkarlan-prozesuan bidez, eta hori egiten du deialdi honek ere, Eusko Jaurlaritzaren, Zineuskadiren, EitBren, Donostia Zinemaldiaren, ZineBiren eta Ezaeren arteko elkarlanaren emaitza baita.

1. Helburua

Deialdi honen helburua da 2020ko ekitaldian Euskadiko ikus-entzunezko sektoreko profesionalei diru-laguntzak emateko oinarriak ezartzea, haiek 7 film labur eta amaieran film luze bat ekoitz ditzaten. Aurrez eginiko film laburrak eta horretarako berariaz sortutako ikus-entzunezkoak uztartuko dituen emaitza lortuko da hala, mundu osoan COVID-19ak eragindako osasun-larrialdia dela eta ezarritako alarma-egoeraren ondoriozko konfinamenduan bizi izandako egoerak irudikatzea izango da helburua, betiere.

Lan konposatu izendatuko da aurretiko lanak uztartzen dituen baina dagozkien egileen elkarlanik gabe, baina egileari dagozkion eskubideak ez dira urratuko eta haren baimena beharrezkoa izango da.

2. Baliabide ekonomikoak

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikaren sailak 255.000 € emango ditu deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzetan.

Horietatik 240.000 € film laburren ekoizpen-kostuak diruz laguntzera zuzenduko da, eta 15.000 € haien ondoren konposatutako film luzearen kostuen zati bat diruz laguntzera.

3. Eskerak

3.1. Eskerak aurkezteko epea deialdi hau ZINEUSKADIren webgunean (www.zineuskadi.eu/Convocatorias) argitaratzen den hurrengo egunean zenbatzen hasiko da, eta argitaratu eta **hamabost egun baliodunera** amaituko da.

3.2. Eskerak I. eranskinean agertzen diren ereduetan formalizatuko dira eta kapitulu bakoitzerako adierazitako dokumentazioa atxiki beharko da. Eskera horiek posta-helbide honetara bidali beharko dira: info@zineuskadi.eu. Jasotako eskaeratzat hartuko dira hura jaso izana egiaztatzen duen agiri elektronikoa eta Zineuskadi elkarteak esleitutako espediente-zenbakia dutenak.

Eskaerarekin batera eskatzailearen IFK edo NANA aurkeztu beharko da, eta Zinematografia eta Ikus-entzunezko Enpresen Administrazio Erregistroan (ICAA) ekoizle moduan izena emanda egotea egiaztatzen duen dokumentazioa.

3.3. II. kapituluko diru-laguntzak jasotzeko hautagaitza aurkeztu nahi duen orok eskaera aurkeztu beharko du I. kapituluan ere.

3.4. Eskaerak aurkezteak deialdi honetako oinarriak ezartzen dituzten baldintzak modu formalean eta espresuki onartzea dakar berekin.

4. Aurkeztutako eskaeran egon daitezkeen akatsak konpontzea

Laguntza-eskaera baldintza guztietan beteta ez balego, ZINEUSKADI elkarteko zerbitzu teknikoek eskatzaileari ikusitako akatsak konpontzeko eskatuko diote. Errekerimendu hori jakinarazpen-helburuetarako eskatzaileak emandako posta elektronikora egingo da. Aipatutako helbideak erabilgarri egon beharko du prozesu osoan. Errekerimenduari eta eskatutako zuzenketari 10 eguneko epean erantzunik ez emateak eskaera aurkezteari uko egitea eragingo du.

5. Diru-laguntzen zenbatekoa

5.1. Agindu honetan jasotako diru-laguntzak laguntza ez-itzulgarri moduan emango dira.

5.2. Proiektu jakinari emandako zenbatekoak ezingo du inola ere film laburraren, edo hala badagokio, film luzearen ekoizpen-kostuen aurrekontuen % 85 baino gehiagokoa izan.

6. Prozeduraren kudeaketa

6.1. Prozeduraren izapidetzea eta ebazpena egiteko eskudun organoa ZINEUSKADI Elkarte da.

6.2. Aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko ondorengoek osatutako Balorazio Batzorde bat osatuko da:

- a) ZINEUSKADIKo presidentea: Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko eta Hizkuntza Politikako zuzendaria edo, bestela, boterea eskuordetzen dion pertsona.
- b) EITBren ordezkari bat.
- c) José Luis Rebordinos Donostia Zinemaldiko Zuzendaria.
- d) Vanesa Fernández, Zinebiko zuzendaria.
- e) Zineuskadi taldeko ordezkari bat.

6.3. Balorazio Batzordeak, aurkeztutako eskaerak behar bezala ebaluatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duenean, eskatzaileei beharrezkotzat jotako azalpen guztiak eskatu ahal izango dizkie.

6.4. Ebazpena egiteko eta jakinarazteko epea eskaera aurkeztu eta hiru hilabetera amaituko da.

7. Diru-laguntzak ordaintzea

7.1. Emandako laguntzak honela ordainduko dira:

- a) Laguntza ematen den unean laguntzaren % 70 ordainduko da.
- b) Gainerako zenbatekoa (% 30) kapitulu horietako bakoitzean adierazitako laguntzen justifikazioan eskatutako dokumentuak jasotzean eta onestean emango da.

7.2. Ez da inolako ordainketarik egingo onuradunak bere zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekin lotutakoak ez badaramatza egunean edo zorduna bada diru-itzuleraren jatorria aitortzen duen ebazpen baten ondorioz.

7.3. Justifikatutako zenbatekoa emandako laguntza baino baxuagoa bada, doiketa bat egingo da bigarren ordainketan (% 30) edo horrekin nahikoa ez bada, diferentzia itzuli egin beharko da dagokion prozeduraren bidez izapidetuta.

8. Pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak:

Onuradun ekoiztetxeak honakoa hitz ematen du:

- a) Emandako laguntza onartzea. Horrekin lotuta, laguntza eman izanaren jakinarazpena jasotzen den datatik zenbatzen hasi eta hamabost egun balioduneko epean erakunde onuradunek espresuki laguntzari uko egingo ez baliote, onartuta geratu dela ulertuko da.
- b) Gastuaren % 100 Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzea.
- c) Bizilekua edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoa duten profesionalek osatutako lantaldea izatea.
- d) Proiektuan lan egiten duten profesional guztiak kontratatzea eta guztiei ordaintzea (sektorearen hitzarmen kolektiboetan jasotako edo ohiturak oinarri hartuta).
- e) Ikus-entzunezko film laburrak eta luzeak Euskadiko Filmategian gordailatzea 14. eta 21. artikuluetan adierazitako baldintza eta epeetan. Epe hori behar bezala justifikatutako arrazoiz bakarrik luza daiteke.

Gordailuak dokumentu bidez egiaztatu beharko dira Zineuskadin.

- f) Zineuskadiri jakinaraztea filmazioaren hasiera- eta amaiera-datak gutxienez 10 egun aldez aurretik eta gehienez amaiera-data baino 20 egun geroago.
- g) Basque.Audiovisual-en babesletza espresuki aipatu beharko da deialdiarekin lotutako jarduerari buruzko sustapeneko euskarrietan eta aleetan. Logoa ondorengo helbidean deskarga daiteke: <https://www.zineuskadi.eu/es/descargas/logotipos/dep-0-3/>
- h) Zineuskadiri jakinaraztea helburu bera duten eta Estatuko zein nazioarteko edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatutatik iritsitako beste laguntza edo diru-laguntza batzuk jaso izana.
- i) Film luzea obra konposatu modura ekoizteko hautatutako ekoiztetxeari baimena ematea norbere film laburra film luzean integratzeko, dagokion kontraprestaziorako klausula ekonomikoarekin. Klausula horrek arautuko du film laburren ekoizle bakoitzari film luzea erabiltzeagatiko onuren 1/8 dagokiola, deialdi honetan bertan 2. kapituluetan jasotako baldintzetan oinarrituta.
- j) EITBrekin komunikazio publikoaren eskubide-lagapena onartzea. Lagapen horrek, dagokion hitzarmenaren baldintzak betez, 2022ko martxotik hasita 2 urteko epekoa izatea arautuko du.
- k) Liburutegi-eskubideen gaineko lagapen ez-esklusiboa onartzea denbora mugagaberako EITBri edo Eusko Jaurlaritzaren aginpeko plataforma publikoei (eLiburutegia), 2024ko martxotik aurrera. Horrek guztiak ez du galaraziko dagozkion jabetza intelektualeko eskubideak, eskubide moralak edo/eta ondarearenak erabiltzea.

9. Ez-betetzeak

9.1. Hauek izango dira ez-betetze kasuak:

- a) Diru-laguntza lortu izana horretarako eskatutako baldintzak faltsututa edo laguntza lortzea eragotziko zuketzen horiek ezkutatuta.
- b) Deialdi honetan aurreikusten ez diren jardueretarako jasotako laguntzak aplikatzea (erabat edo partzialki).
- c) Ez betetzea deialdi honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, hura emateko ekitaldian ezarritakoak.
- d) Dagokionean, laguntzaren likidazio-akordioan horretarako ezarritako epean zenbatekoa ez itzultzea.
- e) Beste edozein xedapenetan izaera orokorrarekin ezarrita dagoen eta derrigor bete beharra dagoen beste edozein.

9.2. Pertsona edo entitate onuradunak emandako laguntza bete izana behar bezala justifikatuko ez balu edo aurreko ataleko kasuren bat beteko ez balu, ordaindutako laguntza (osorik edo

partzialki) eta laguntza ordaindu den unetik itzulera egin den unera arteko berandutze-interesak itzultzea eskatuko zaio proportzionaltasuneko printzipioak ezarritakoaren arabera.

I. KAPITULUA: 7 FILM LABURREN EKOIZPENA

10. Onuradunak

10.1. Laguntza hauen onuradun izateko helbide edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisikoa edo juridiko-pribatua izan beharko da eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Ikus-entzunezkoen Arteetako eta Zinematografiako Institutuko (ICAA, gaztelaniaz) Zine eta Ikus-entzunezkoetako enpresen Administrazio Erregistroan ekoizle moduan egon beharko dute izena emanda.

10.2. Ezingo dituzte laguntzak jaso:

- Laguntza publiko edo diru-laguntzak lortzeko aukera galdua zigor penal edo administratiboa ezarrita duten erakundeek, edo horretarako ezgai bilakatzen dituen lege-debekua dutenek, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko seigarren azken xedapenak ezarritakoaren arabera sexu-bazterkeriak eragindakoak barne.
- Diru-laguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako baldintzaren bat betetzen duten pertsonak edo erakundeek.
- Sektoreko elkarte profesionalak.

11. Proiektuen baldintzak

11.1. Deialdi honetan sartzan diren film laburrek baldintza hauek bete behar dituzte:

- H.264-ko konpresioa (mov, mp4) eta 1080p-ko bereizmena, jatorrizko bertsioan eta behar diren azpidatziekin (euskara, gaztelania, ingelesa).
- 8 eta 12 minutu bitarteko iraupena (kreditu-tituluak aparte).
- ildo nagusi komuna izatea: alarma egoeraren ondoriozko konfinamendua.
- edozein hizkuntzatan ekoitzi izana, nahiz eta balio berezia emango zaien euskaraz ekoitzitakoei.
- Bizilekua edo egoitza soziala Euskadin duten artista, tekniko eta profesionalekin lan egitea % 100ean euskal titulartasuna izango duen ikus-entzunezkoa ekoiztean eta garatzean, Espainiako Zinemaren Legearen 5. artikuluko baldintzei jarraituz: egileak (gidoilariak, zuzendaria, argazkilaritza-zuzendaria eta konposatzailea) % 75, aktoreak:% 75, sortzaileak eta teknikoak % 75, eta filmazioa eta postprodukzioa EAEn egitea.



11.2. Azpidatzien itzulpena eta sinkronizazioa egin ondoren, egileek lanak promozionatzeko beharrezko materialak sortu beharko dituzte behin-betiko SRT-etan:

- Film laburraren ProRes HQ422 fitxategia, jatorrizko bertsioan, eta beharrezkoa izanez gero, ingelesezko eta gaztelaniazko azpidatziekin.
- H.264-ko konpresioa (mov, mp4) eta 1080p-ko bereizmena duten film laburraren kopiak, jatorrizko bertsioan eta behar diren azpidatziekin.
- Film laburraren kopia bat edo lehenengo DCP-a jatorrizko bertsioan eta behar diren azpidatziekin. Bertsio guztiak disko berean aurkeztu beharko dira.

11.3. Edonola ere, argitaratu gabeko eta oraindik grabatu gabeko filmak izan beharko dute.

12. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

12.1. Hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a. Proiektuaren azalpen-memoria.
- b. Gidoiaren sinopsia (gehienez 2 orrialde)

Jatorrizko gidoiaren jabetza intelektualaren eskubideak izatearen akreditazioa, edo bestela jatorrizko lanarena, eta halakorik izan ezean, jabetza intelektualeko lagapen eskusiborako kontratua egiteko baldintzak hitzartuta daudela ziurtatzea, edo hala badagokio, aurretik bazen film laburra obra konposatu moduan sortu den film luzean integratzeko baimena ematea.

d. Aurrekontua, partidaka zehaztua. Film laburraren ekoizpen-kostuen % 85 ordainduko da gehienez, Filmaren kostua aitortzea eta ekoizlearen inbertsioa arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 2. artikuluan jasotzen diren baldintzatan.

Finantzaketa-plana. Bertan espresuki adieraziko dira aurreikusten diren kontratuak, baita haientzat aurreikusten diren ordainsariak ere.

f. Fitxa teknikoa eta artistikoa.

g. Zuzendaritzaz, gidoigintzaz eta ekoizpenaz arduratzen direnen historia profesionala.

Aurreikusitako egutegia eta filmazio-plana, denbora eta kokalekuak adierazita.

13. Hautaketa- eta balorazio-baldintzak

Balorazio Batzordeak jasotzen dituen eskaerak aztertuko ditu eta zehaztutako alderdi guztiak ebaluatuko ditu bi fasetan, baremo honi jarraikiz:

- a. Proiektuaren interes orokorra. (30 puntu)

- Proposamen estetiko-artistikoa, begirada zinematografikoa eta eszenaratzea. (15 puntu)
- Ikus-entzunezko obraren gidoiaren sinopsiaren kalitatea (15 puntu)

b. Ekoizpena (30 puntu)

- Aurrekontuaren eta finantzaketa-planaren egokitasuna (10 puntu)
- Film luze eta laburretan erabilitako enpresa-baliabideak eta giza baliabideak: ekoiztetxeko zuzendariaren eta gidoigilearen curriculumak. Ekoiztetxean, zuzendarien eta gidoigileen historialetan kontuan hartuko dira aurrez egindako lanak eta gauzatutako proiektuen kopuruari baino gehiago erreparatuko zaio publikoarengan lortu duen oihartzunari eta hedabide espezializatueta izandako kritikei. (20 puntu)

Proposamenek gutxienez 35 puntu izan beharko dituzte ondorengo puntuazio-blokerak pasatzeko:

c. Zeharkako politikak (40 puntu)

- **Generoa** Emakumeen parte-hartzea baloratuko da postu hauetan (20 puntu): zuzendaritza (4 puntu); gidoigintza (4 puntu), ekoizpen exekutiboa (4 puntu); argazki-zuzendaritza (2 puntu); muntaia (2 puntu); soinu-banda (2 puntu) eta soinua (2 puntu).
- **Euskara** Gehienez 20 puntu emango zaizkie komunikazio-hizkuntza moduan euskara erabiltzen duten proiektuei.

14. Laguntzen justifikazioa

14.1. Laguntzak 2020ko abenduaren 31 baino lehen justifikatu beharko dira, helbide elektronikoa honetan: info@zineuskadi.eu

14.2. Hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Euskadiko Filmotekaren gordailuan DCP bat akreditatzea, baldintza ezin hobeetan eta ekoizpenaren jatorrizko hizkuntzan, fitxategi digitalak, lanaren DVD komertziala (halakorik baldin bada), dialogoan zerranda jatorrizko bertsioan eta bikoiztu/azpidatutako hizkuntza bakoitzean, sei afixa eta sei argazki, eta Euskadiko ondarea kontserbatzeko eta hedatzeko interesgarria den beste edozein promozio-dokumentu, inola ere ez direnak erabiliko helburu komertzialetarako.

Edonola ere, lanaren gordailuak 2021eko otsailaren 15a bitarte egiteko aukera izango da, eta dokumentazio hori gainerako dokumentazioaren ondoren entregatu beharko da.

b) 2020ko ekitaldian gauzatutako film laburraren ekoizpenaren kostuei buruzko txostena, deialdi honi atxikitako ereduaren arabera egina eta egindako gastuak behar bezala egiaztatzen dituen justifikazioa. Horretarako, jatorrizko fakturak edo konpultsatutako kopiak eta ordainketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Justifikazioa, halaber, ICAAK edo finantza-auditoria batek onartutako kostu-egiaztagiri bat aurkeztuz ere egin daiteke. Edonola ere, profesional guztiei egindako ordainketak behar bezala egiaztatuta egon beharko du.

c) Beste laguntza publiko batzuen erantzukizunpeko adierazpena.

d) ISAN Erregistroaren esleipenerako izapideak bete izanaren akreditazioa, ICSAN Erregistroaren Agentzia Iberoamerikarrean (ARIBSAN).

e) EITBrekin sinatutako kontratua, komunikazio publikoaren eskubide-lagapenari buruzkoa.

15. Bateriaezintasunak

15.1. Laguntza hau ez a bateragarria Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak film laburren ekoizpenerako ematen dituen ohiko laguntzekin.

15.2. Zuzendaritzak, ekoizle exekutiboek, gidogileek, pertsonaia nagusiek (aktorea) eta taldeetako zuzendariak ezingo dute hautatutako proiektu batean baino gehiagotan parte hartu.

15.3. Izaera teknikoa duten profilek ezingo dute diru-laguntzen lerro honetan hautatutako bi film laburretan baino gehiagotan parte hartu.

15.4. Proiektu honekin bateraezina da proiektu berean pertsona bakoitzak lanpostu bat baino gehiago izatea.

II. KAPITULUA: FILM LUZEA OBRA KONPOSATU MODUAN PRESTATZEA

16. Obra konposatu modura osatutako film luzearen onuradunak

Laguntza hau I. kapituluko onuradunei zuzenduta dago, eta horrenbestez, film luzea obra konposatu modura osatuko duten zazpi film laburretako baten ekoizleari esleituko zaio.

17. Film luzearen baldintzak

17.1. Deialdi honek helburu duen film luzeak baldintza hauek izan behar ditu:

- H. 264-ko konpresioa (mov, mp4) eta 1080p-ko bereizmena, jatorrizko bertsioan eta behar diren azpidatziekin (euskara, gaztelania, ingelesa).
- 56 eta 84 minutu bitarteko iraupena (kreditu-tituluak aparte).
- Izenburu propioa

17.2. Postprodukzio-prozesua amaituta, ekoizleak hau sortu beharko du:

- Film luzearen ProRes HQ422 fitxategia, jatorrizko bertsioan, eta beharrezkoa izanez gero, ingelesezko eta gaztelaniazko azpidatziekin.
- H.264-ko konpresioa (mov, mp4) eta 1080p-ko bereizmena duten film luzearen kopiak, jatorrizko bertsioan eta behar diren azpidatziekin (euskara, gaztelania, ingelesa).
- Film luzearen DCP bat, jatorrizko bertsioan eta behar diren azpidatziekin. Bertsio guztiak disko berean aurkeztu beharko dira.

17.3. Film luzearen kredituetan zazpi film laburren jabetza intelektualeko eskubideen titularrak txertatu beharko dira.

18. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Hau da proiektuaren inguruan aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a. Film luzea prestatzeko proposamen estetiko-narratiboa.
- b. Marketing plana
- d. Aurrekontua, partidaka zehaztua. Film luzearen ekoizpen-kostuen % 85 ordainduko da gehienez, Filmaren kostua aitortzea eta ekoizlearen inbertsioa arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 2. artikuluan jasotzen diren baldintzatan.
- d. Aurreikusitako egutegia.
- e. Finantzaketa-plana.

19. Bateragarritasuna

Laguntza hauek ez dira bateragarriak izango Zineuskadik kudeatzen dituen gainerako laguntza-lerroekin (Fikziozko eta animaziozko film luzeak eta sorkuntzazko dokumentalak sustatzeko eta publizitatea egiteko laguntzen deialdia eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren merkatuetan, azoketan eta ekimen profesionaletan parte hartzeko ikus-entzunezkoen arloko profesionalentzako laguntza deialdia).

20. Bateraiezintasuna

Laguntza hau ez da bateragarria Eusko Jaularitzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak film luzeen ekoizpenerako ematen dituen ohiko laguntzekin.

21. Hautaketa- eta balorazio-baldintzak

Balorazio Batzordeak I. kapituluan jasotzen diren laguntzen onuradun diren eskaerak aztertuko ditu eta sormen-proposamen guztiak honako baremoaren arabera baloratuko ditu:

- Proposamenaren sormen- eta kultura-interesa. Konposizioaren proposamen estetiko-narratiboa (10 puntu)
- Marketinga. Promoziorako materialak eta euskarriak. Estrategia (40 puntu)
- Ekoizpena (30 puntu)
 - Aurrekontuaren egokitasuna (15 puntu)
 - Kalitate teknikoa (15 puntu)

22. Laguntzen justifikazioa

22.1. Laguntzak 2021ko otsailaren 15a baino lehen justifikatu beharko dira helbide elektroniko honetan: info@zineuskadi.eu

22.2. Hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a. Euskadiko Filmotekaren gordailuan DCP bat akreditatzea, baldintza ezin hobeetan eta ekoizpenaren jatorrizko hizkuntzan, fitxategi digitalak, lanaren DVD komertziala (halakorik baldin bada), dialogoan zerrenda jatorrizko bertsoan eta bikoiztu/azpidatutako hizkuntza bakoitzean, sei afixa eta sei argazki, eta Euskadiko ondarea kontserbatzeko eta hedatzeko interesgarria den beste edozein promozio-dokumentu, inola ere ez direnak erabiliko helburu komertzialetarako.
Edonola ere, lanaren gordailuak 2021eko otsailaren 15a bitarte egiteko aukera izango da, eta dokumentazio hori gainerako dokumentazioaren ondoren entregatu beharko da.
- b. 2020ko ekitaldian gauzatutako film luzearen ekoizpenaren kostuei buruzko txostena, deialdi honi atxikitako ereduaren arabera egina eta egindako gastuak behar bezala egiaztatzen dituen justifikazioa. Horretarako, jatorrizko fakturak edo konpultsatutako kopia eta ordainketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Justifikazioa, halaber, ICAAK edo finantza-auditoria batek onartutako kostu-egiazttagiri bat aurkeztuz ere egin daiteke.
- c. Beste laguntza publiko batzuen ardura duen adierazpena.
- d. ISAN Erregistroaren esleipenerako izapideak bete izanaren akreditazioa, ICSAN Erregistroaren Agentzia Iberoamerikarrean (ARIBSAN).
- e. Banatzaile nazional edo nazioarteko batekin hitzarmena.
- f. EITBrekin sinatutako komunikazio publikorako eskubideen lagapen-kontratua, baldin eta halakorik bada.

Lehenengo azken xedapena

Deialdi honen kontra interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkezteko aukera izango dute Zineuskadiren presidentearen aurka haren argitalpenetik hasi eta hilabeteko epean, edo



administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horren Aretoan argitalpen-dataren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Bigarren azken xedapena

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Jabetza Publikoko eta Sormeneko Izaera Pertsonaleko Datuen Fitxategiei buruzko 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak xedatutakoa betez, deialdi hau izapidetzeko garaian jasotako datu pertsonalak fitxategi batean jasoko dira (datu horien tratamendua eta argitalpena baimendu dute bertan parte hartzen dutenek). Fitxategi horren helburua izango da diru-laguntzen deialdi hau eta harekin lotutako beste edozein administrazioko espediente edo prozedura kudeatzea eta deialdian parte hartu duten pertsonen deialdiaren garapenaren inguruko informazioa ematea. Fitxategi honen arduraduna Zineuskadi Elkarte da. Harekin harremanetan jartzeko helbide hau erabil dezakezu:

Zineuskadi elkarte

TABAKALERA eraikina

Andre zigarrogileak plaza, 1 - 3.

20012 Donostia

Gainera, deialdi honetan parte hartu duten pertsonen fitxategian jasotako datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei uzteko baimena ematen dute deialdiaren helburuarekin bat datozen helburuetarako. Bestalde, Zineuskadi elkarteari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla egiaztatzeko.

Donostian, 2020ko aren (e)(a)n

Zineuskadi Elkarteko presidentea

Aitziber Atorrasagasti Calcedo